



2 0 0 3



x
o
s
t
e
n
a



Osakidetza
Servicio vasco de salud



OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SANIDAD

Ale-kopura: 1.500 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Osakidetza/Euskal osasun zerbitzua

Internet: www.osakidetza-svs.org

e-mail: coordinacion@sscc.osakidetza.net

Paper ekologiko birziklatuan imprimatua

■ Osasun sailburu jaunaren aurkezpena

Beste urtebetez ere, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren emaitzen berri ematera gatoz, eta, berriro ere, ikus dezakegu jarduera etengabe ari dela handitzen. Atentzio espezializatuak gora egin du -hala erakusten baitute ospitaleko ingresuek, %2ko igoera- eta beste horrenbeste interbentzio kirurgikoei eta ospitalean atenditutako larrialdiei ere -%3 igo baitira-. Asistentziaren presio hori izanda ere, kirurgiako itxaronzerrendako batez besteko atzerapena jaitsi egin da, hain justu ere, 54 egun baino gutxiagokoa izan da; oso datu ona, beraz. Espezialitateetako kontsultek ere %2 inguru egin dute gora; kasu honetan, alabaina, urgenteak ez diren lehenengo kontsultetako atzerapena areagotu egin da, eskari handia daukaten espezialitateetan areagotu ere.

Lan gaitza da ondoko hiru elementu hauen arteko orekari eustea: asistentziaren eskaria mugagabea, eskura ditugun baliabide ekonomikoen igoera mugatua eta sistemaren kalitatea; horregatik, gero eta ahalegin handiagoa egin behar dugu estrategia eta jardunbide berriak bilatzeko, hiru alderdi horiek uztartuko baditugu.

Illo horri jarraituz, Osakidetza eguneratu egin ditu etorkizunari begira jarritako planteamendu estrategikoak, 2007. urtera arte, hain zuzen ere. Geure buruari jarri dizkiogun 5 helburu korporatiboei paziente, kalitate eta eraginkortasunarekiko konpromiso handia eskatzen dute. Ikerketa, garapena eta berrikuntza (I+G+B), hain zuzen ere, horietako helburu bat da osasun-sistema publikoaren iraunkortasunari erantzun bat eman diezaiokeena bihar-etzi; izan ere, sistema publiko horrek presio demografiko, teknologiko eta sozial handiei egin behar die aurre.

Osakidetza lan egiten dutenek ere arreta berezia jaso dute 2003an. Alde batetik, inkesta korporatibo bat egin da lehendabiziko aldiz Osakidetza ente publikoa osatzen duten erakunde guztietako langileen motibazioa eta gogobetetasuna zein den jakiteko; bestetik, egitasmo berri batzuei ekin diegu langileen behar eta garapen profesionalari erantzuteko, eta espero dugu denbora gutxi barru ezarrita egotea. Bestalde, inguru soziokulturalari erantzun nahian, gure osasun-zerbituetan euskararen erabilera normalizatzeko urrats garrantzitsuak eman dira.

Urtearen nondik norakoak aztertzeke une honetan eskerrak eman nahi dizkiet herritarrei, beroiek ematen baitizkigute baliabideak (Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen bidez) gure jarduna ahal den ondoen egin dezagun, eta, batik bat, eskertu nahi diet jardun horretaz duten iritzi ona -hala jasotzen baita Osakidetza zerbitzu-erakundeek egindako hainbat eta hainbat iritzi-azterketa independentetan-.

Azkenik, nire poza agertu nahi dut eta eskerrak eman Osakidetza lanean ari diren pertsona guztiei. 20.000tik gora dira eta horien ahalegin, konpromiso eta ardurari esker eskuratu ditugu 2003. urtean zenbait sari eta aitorten, eta hala dago jasota aurkezten dudana memoria honetako testuan.

Gabriel M^a Inclán Iríbar

Aurkibidea

I. SARRERA	9
Zerbitzu-erakundearen mapa	12
II. ESTRATEGIA	13
MISIOA, IKUSPEGIA ETA BALOREAK	15
HELBURU ESTRATEGIKOAK	17
ERABATEKO KALITATEA	18
- Euskalit/Kalitaterako Euskal Fundazioa	18
- EFQM ereduaren bidezko ebaluazioak	18
- 2003-2007 Kalitate-plana	18
- 2003-2007 Kalitate-planaren aurrerabidea	18
KUDEAKETA KLINIKOKO UNITATEAK	20
2003ko BESTE PROIEKTU GARRANTZITSU BATZUK	22
- Lehen mailako atentzioa	22
- Atentzio espezializatua	24
- Emergentziak	24
AITORMENAK	25
- Erakundearen kanpo-aitormenak (ISO eta EFQM)	27
ERAKUNDEAREN ARGITALPENAK	28
- Inprimatuak	28
- Bideografikoak	28
INTERES BEREZIKO ARAUTEGIA	29
III. PERTSONAK	31
PLANTILLA	33
- Plantillaren banaketa	33
- Plantillaren ezaugarriak	36
- Enplegatutako pertsonen batez besteko kopurua	38
- Plantillaren plangintza eta antolamendua	38
HAUTAKETA ETA LANPOSTUAK BETETZEA	39
- Lan-eskaintza publikoa	39
- Deialdi publikoak	39
- Aldi baterako kontratazioa	39
HIZKUNTZA-NORMALIZAZIOA	42
EMAITZAK PERTSONENGAN	43

- Pertsonen gogobetetzearen ebaluazioa	43
LAN-OSASUNA	49
- Lan-arriskuen prebentzioaren kudeaketa	49
- Osasunaren zainketa	49
- Lan-istripuak eta gaixotasun profesionalak	49
- Lekualdatzeak osasunarengatik	49
- Txertaketa-programa arrisku biologikoen aurrean	50
- Lan-absentismoa	50
NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA	51
- Mahai sektoriala	51
- Mahai orokorraren akordioa ordainsarien gainean	51
LAN-JURISDIKZIOA	52
IV. BALIABIDEAK	53
OBRAK, INSTALAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK	55
- Obrak	55
- Instalazioak	55
- Ekipamendua eta goi-mailako teknologia	56
INFORMAZIOKO SISTEMAK ETA TEKNOLOGIAK	57
- Garapen-arloa	57
- Ekoizpen-arloa	58
- Aldabide eta Gizabide arloa	59
V. PROZESUAK (jarduera)	61
JARDUERARI BURUZKO ZENBAIT GOGOETA	63
- Lehen mailako atentzioa	63
- Atentzio espezializatua	63
LEHEN MAILAKO ATENTZIOKO JARDUERA	65
- Oinarrizko adierazleak	65
- Gripearean aurkako txertaketa-kanpaina	66
AKUTUENTZAKO ETA EGONALDI ERTAIN ETA LUZEKO OSPITALEETAKO JARDUERA	67
- Oinarrizko adierazleak	67
- Ospitalizazioaren alternatibak	69
- Ingresuak eta kontsultak zerbitzuko: akutuentzako eta egonaldi ertain eta luzeko ospitaleak	70
- Akutuentzako ospitaleetako altak: 25 DTE ohikoenak	71
- Egonaldi ertain eta luzeko ospitaleetako altak: 25 DTE ohikoenak	72
ASISTENTZIA PSIKIATRIKOKO ETA OSASUN MENTALEKO JARDUERA	73

EMERGENTZIAK	75
ATENTZIO ESPEZIALIZATUKO BESTE PROGRAMA BATZUETAKO JARDUERA	76
- Hiesa Prebenitzeko eta Kontrolatzeko Plana	76
- Titietako Minbizia Goiz Detektatzeko Programa	77
- Haurren Hortzak Zaintzeko Programa	78
- Transplanteetako Programa	79
- Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroa	80
VI. EMAITZAK	83
EMAITZEI BURUZKO ZENBAIT GOGOETA	85
- Antzemandako kalitatea	85
- Lehen mailako atentzioa	85
- Atentzio espezializatua	86
ANTZEMANDAKO KALITATEA	87
- Gogobetetasun-inkestak	87
- Kexak, erreklamazioak eta eskerronak	89
- Jardun sanitarioetatik eratorritako erreklamazio judizialak	90
BITARTEKO ETA AZKEN EMAITZAK: LEHEN MAILAKO ATENTZIOA	91
- Eskuragarritasuna	91
- Irakaskuntza	91
- Ikerkuntza	91
- Baliabideen erabilera	91
- Informatizazioa	91
BITARTEKO ETA AZKEN EMAITZAK: AKUTUENTZAKO ETA EGONALDI ERTAIN ETA LUZEKO OSPITALEAK.	92
- Baliabideen erabilera	92
- Oinarrizko adierazleak	92
- Ospitalizazioaren alternatibak	93
- Batez besteko egonaldia eta okupazio-indizea espezialitateen arabera.	94
- 25 DTE ohikoenen batez besteko egonaldia: akutuentzako ospitaleak	95
- 25 DTE ohikoenen batez besteko egonaldia: egonaldi ertain eta luzeko ospitaleak	96
- Alta anbulatorioak DTEen arabera: akutuentzako ospitaleak	97
- Berringresuak espezialitateen arabera: akutuentzako ospitaleak	98
- Berringresuak DTEen arabera: akutuentzako ospitaleak	99
- Eskuragarritasuna	100
- Kirurgiako itxaronzerrenda	100
- Kirurgiako itxaronzerrenda: paziente gehien dituzten 25 prozedura kirurgikoak	102
- Kanpo-konsultetako itxaronzerrenda	103
- Proba osagarrietako itxaronzerrenda	104

- Baimen informatua	105
- Irakaskuntza	105
- Ikerkuntza	105
- Erizaintzako atentzioaren prozesua	105
- Alta ondoko zainketak: ospitalea eta lehen mailako atentzioa	105
- Farmazia	105
- Heriotza-tasa	105
- Arrisku-adierazleak	105
- Infekzio nosokomiala	106
BITARTEKO ETA AZKEN EMAITZAK: ASISTENTZIA PSIKIATRIKOA ETA OSASUN MENTALA	107
BITARTEKO ETA AZKEN EMAITZAK:	
ATENTZIO ESPEZIALIZATUKO BESTE PROGRAMA BATZUK	108
- Hiesa Prebenitzeko eta Kontrolatzeko Plana	108
- Titietako Minbizia Goiz Detektatzeko Programa	108
- Haurren Hortzak Zaintzeko Programa	111
KOSTUAK	112
- Kostuak	112
- 25 DTE ohikoenen kostuak: akutuentzako ospitaleak	113
- 25 DTE ohikoenen kostuak: egonaldi ertain eta luzeko ospitaleak	114
PROGRAMA-KONTRATUA	115



I. Sarrera

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Osasun Sailari atxikitako zuzenbide pribatuko Ente Publikoa da. Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren Legeak dioenaren arabera, badu bere nortasun juridikoa eta ahalmen osoa bere helburua betetzeko, hau da, zerbitzu sanitarioak eskaintzeko, bere menpean dauden zerbitzu-erakundeen bidez.


Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldea, egoera soziosanitarioaren arabera, hiru mugape geografiko (osasun-barrutiak deiturikoak) hauetan zatituta dago: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa. Barruti bakoitzean lehen mailako atentzioa egoki antolatu eta atentzio espezializatuarekin koordinatzea bermatzen da. Horrela, bada, Osakidetzaren barruan ondoko zerbitzu sanitarioak daude:

- Lehen mailako atentzioa:
 - 7 osasun-eskualde
 - 310 osasun-zentro
- Ospitaleko atentzioa:
 - Akutuentzako 11 ospitale
 - Egonaldi ertain eta luzeko 3 ospitale
- Osasun mentala:
 - Akutuentzako ospitaleetan integratutako Psikiatriako 5 zerbitzu
 - Psikiatriako 4 ospitale monografiko
 - Ospitalez kanpoko osasun mentaleko 3 barruti. Horietako bat Psikiatriako ospitale monografiko batean dago integratuta
- Beste batzuk:
 - Emergentziak
 - Transfusioen eta Giza Ehunen Euskal Zentroa
 - Osatek-Euskadiko Teknologia Sanitaria SA

Zerbitzu sanitarioak eskaintzeko egitura publikoak honela antolatuta daude Osakidetzako Estatutuen arabera (255/1997 Dekretua):

- Erakunde nagusia:
 - Presidentetza: Osasun sailburua, Ente Publikoaren eta horren Administrazioako Kontseiluaren ordezkaria dena. Ente Publikoaren operazioak gainbegiratu eta horren eskubide zein interesak defendatzen ditu.
 - Administrazioako Kontseilua: kide anitzeko organoa, batez ere Ente Publikoaren jarduerak zuzendu eta kontrolatzen dituen eta Autonomia Erkidegoko Administrazioa ordezkatzeko duten bost kidek osatua, presidenteari gainera.
- Administrazio eta kudeaketa korporatiboko erakunde zentrala: Administrazioako Kontseilua laguntzeko zuzendaritza-egitura osatzen du, eta bere zuzendaritza-atribuzioak hauek dira: zerbitzu-erakundeei dagokienez, kontrolatzea, estrategia koordinatzea, eta kudeaketa-eskumenetan laguntzea edo eskumen hori gauzatzea. Erakunde zentralaren organoak honela egituratuta daude:
 - Zuzendaritza Nagusia
 - Asistentzia Sanitarioko Dibisioa
 - Ekonomia eta Finantzako Dibisioa
 - Giza Baliabideetako Dibisioa
- Zerbitzu sanitarioetako erakundeak: osasun-zerbitzuak eskaintzen dituzte, eta horretarako, ekonomia eta finantzako autonomiaren eta kudeaketaren printzipioa hartzen dute aintzat.

Zerbitzu-erakundeen mapa



- ♠ Ospitalez kanpoko osasun mentala
- ▲ Emergentziak
- Akutuentzako ospitalea
- ★ Ospitale psikiatrikoa
- ◆ Egonaldi ertain eta luzeko ospitalea
- Transfusioen eta Giza Ehunen Euskal Zentroa



II. Estrategia

■ Misioa, ikuspegia eta baloreak

Misioa

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren misioa, EAEko sistema sanitarioaren funtsezko alderdia izaki, bertako herritarrei zerbitzu sanitario publikoak ematea da, euren osasun-beharrizanak betetzeko, ekitate, efizientzia eta kalitatearen printzipioei jarraiki, osasuna sustatu, prebenitu, zaindu eta hobetzeko jardueren garapenaren bitartez.

Aipatutakoa lortzeko, ondokoak hartzen ditugu gure gain:

- Pazientea, gure jarduera asistentzial guztiaren erdigune eta helburu gisa.
- Pertsonen garapena, funtsezko balore gisa helburuak bete ahal izateko.
- Berrikuntza eta ikerkuntza, aldagetara egokitzeko adierazle gisa.
- Ezagutzaren kudeaketa aktiboa, gure zentroen arteko koordinazioaren eta elkarlanaren bitartez.
- Kudeaketa sistema eragingarria, parte-hartzailea, koordinatua eta etengabeko hobekuntzara begira dagoena.

Horrela, ondokoak lortu ahal izango ditugu:

- Gure pazientea gogobetetzea.
- Gure langileak gogobetetzea eta Osakidetzako helburuen aldeko ahaleginean parte hartu dezaten lortzea.
- Giza baliabideak eta baliabide materialak eragingarritasunez eta efizientziaz kudeatzea.
- Erkidegoaren garapenari gure ahalegina gaineratzea.

Ikuspegia

Osakidetzak pazienteari begira dagoen erakunde sanitario bikaina izan nahi du.

Ikuspegiaren definizioak ondokoak dakartza berekin:

- Osakidetzak izaera publikoko erakunde sanitario gisa eratu eta jardun nahi du.
- Bikaintasunaren aldeko apustua egiten du, faktore bereizle gisa, bere jardueraren alor guztietan.
- Bere zeregina pazienteari begira dago guztiz.

Baloreak

Osakidetzak, hornidura sanitarioarako sistema publikoa den aldetik, sinesteez eta baloreez osatutako sistema bat eratu du, bere misioari eta etorkizunerako proiektuari erantzuteko. Balore-multzo horretan biltzen diren ezaugarri kulturalak pentsatzeko, baloratzeko eta jokatzeko modua definitu behar dute Erakundeko pertsona guztientzat.

Ondoko bost balore hauek -denborari dagokionez, iraunkorrak, eta, egokitzapenari dagokionez, malguak- Osakidetzako identitate-ezaugarria osatzen dute, bai barrura, bai kanpora begira.

Bezeroari begira: Jarduera asistentzialaren erdigunea pazientea da, eta bere osasunaren beharrez bideratu behar dute jarduera guztien irizpide nagusia, betiere, Pazienteen Eskubide eta Betebeharren Kartarekin sintonian.

Bezeroari begira jartzea ezartzen duen balore horrek Erakundearen aldetik eskatzen dituen jokaeretatik ondokoak dira espezifikoenak:

- Pertsona modu integralean kontsideratzea.
- Tratu zuzena eta pertsonalizatua.
- Informazio egokia ematea garaiz.
- Bezeroen testuinguru linguistikoa errespetatzea eta Euskara sartzen joatea eurenganako tratuan.

Profesionaltasuna: Gaitasun teknikoa, kudeaketako gaitasuna eta pertsonen ardura dira eraginkortasuna eta kalitatea lortzeko faktore nagusiak.

Profesionaltasunak eskatzen dituen jokaeretatik ondokoak dira espezifikoak:

- Ezagupenak etengabe eguneratzea.
- Diagnostiko eta tratamenduan eragingarriak izatea.
- Nork bere esparruan bere jardura arduraz betetzea.

Berrikuntza eta etengabeko hobekuntza: Erakunde osoaren eta bere zentroen erantzukizuna da ingurumen sanitarioaren behar eta eskari berriei irtenbide berritzaileen bitartez erantzuna ematea.

Berrikuntza eta etengabeko hobekuntzaren alde egiteak ondoko joera espezifikoak eskatzen ditu:

- Aldaketetara etengabe egokitzea.
- Aurrera egiteko eta ekimenez jokatzeko jarrera aktiboa.
- Denok era aktiboan parte hartzea.

Helburuekiko konpromisoa: Misioa beteko bada, pertsona guztiak Osakidetzaren helburuekin identifikatzea eta helburu horiek lortzeko parte hartzea, bete beharreko baldintzak dira.

Helburuekiko konpromisoa ondoko jokaera espezifikoetan agertzen da:

- Talde-lana.
- Jardueren planifikazioa eta helburuen lorpena.
- Lortutako emaitzen erantzukizuna gainean hartzea.
- Kontrola eta plangintza, segimendua eta hobekuntza egiteko mekanismoak ezartzea.

Emitzei eta efizientziari begira egin beharreko lana: Osakidetzak, baliabide publikoak kudeatzen dituen aldetik, kudeaketako alor guztietan eragingarritasuna, efizientzia eta kalitatea lortzeko erantzukizuna dauka.

Emitzei begira lan egiteak ondoko jokaera espezifikoak eskatzen ditu:


- Zorroztasuna, baliabideak erabiltzeko garaian.
- Baliabide horiek errentagarri bihurtzea.

■ Helburu korporatiboak

Datozen urteetako helburu korporatiboak misioaren, ikuspegiaren eta baloreen definizioarekin bat datozela -eta horiekin koherentzia- planteatzen ditu Osakidetza. Kontuan hartzen du ingurumenean gerta daitezkeen aldaketen eragina, eta bere ahalmenak eta baliabideak baliatzen ditu.

Helburuen asmoa da bezero/pazienteei euren zerbitzura, eragingarritasunera eta kalitatera bideratutako sanitatea eskaintzea, helburu horietan pertsonak inplikatzu, eta erakundeak bideratuz enpresaren kudeaketa eta teknologiaren etengabeko garapenari begira. Bost dira:

1. BEZERO/PAZIENTEAREN ZAKO ZERBITZUA
2. PERTSONEN INPLIKAZIOA
3. ERABATEKO KALITATEA
4. ENPRESA- ETA KUDEAKETA-GARAPENA
5. IKERKETA, GARAPENA ETA BERRIKUNTZA



■ Erabateko kalitatea

Euskalit/Kalitaterako Euskal Fundazioa

2003. urtean Osakidetzak Euskalit/Kalitaterako Euskal Fundazioaren Patronatuko lehen lehendakariordetza bere gain hartu du.

European Foundation for Quality Management ereduaren bidezko ebaluazioak

1. Kanpo-ebaluazioa:

2003. urtean Osakidetzako 4 zentrok Euskalit/Kalitaterako Euskal Fundazioaren kanpo-ebaluazioko prozesua iragan dute. Horietako hiruk (Gipuzkoako Ekialdeko Eskualdea, Txagorritxu Ospitalea eta Osatek) 400 puntuak gainditu dituzte eta zilarrezko Qa lortu dute. Laugarrenak, Zumarragako Ospitaleak, 500 puntuak gainditu eta urrezko Qa irabazi du: Kudeaketaren Kalitatearen Euskal Saria.

2. Euskaliteko Ebaluatzaileen Kluba:

Osakidetzak Euskalitek akreditutako EFQMko 76 ebaluatzaile ditu (Euskaliteko ebaluatzaileen %11, gutxi gorabehera). Horietako askok enpresen kanpo-ebaluazioetan parte hartu dute, Enpresa-kudeaketaren Kalitatearen Euskal Saria emateko.

2003-2007 Kalitate-plana

2003an zerbitzu-erakundeak Kalitate-plana ezartzen hasi dira, nor bere helburuekin hasi ere.

Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiak zuzendaritza-batzordeen eginkizunak zehaztu ditu jarraibide baten bidez, eta, era berean, beste egitura hauen eginkizunak ere bai: kalitatea kudeatzeko sistemaren koordinatzaileenak, zerbitzu-erakundeetako kalitate-batzordeenak eta Kalitate-planaren Batzorde Nagusiarenak.

Asistentziaren Kalitatearen Zuzendariordetzak koordinatuta, dokumentu tekniko bat egin da kalitate-planaren adierazleak zehazteko eta aurrerabide-txostenaren egiturarako.

2003-2007 kalitate-planaren aurrerabidea

Kalitate-planak bi helburu orokor eta hamabi espezifiko ditu:

I. Zerbitzu sanitarioaren kalitatea hobetzea:

1. Prestazio sanitarioen eraginkortasuna eta efikazia hobetzea
2. Atentzioaren jarraikortasuna hobetzea
3. Prestazio sanitarioen erabileraren egokitasuna hobetzea
4. Pazienteen asistentzia sanitarioaren segurtasuna hobetzea
5. Prestazio sanitarioen eskuragarritasuna hobetzea
6. Ostalaritzako tratua eta baldintzak hobetzea
7. Informazioa hobetzea

II. Kudeaketako kalitatea hobetzea:

1. Aitzindaritza
2. Politika eta Estrategia
3. Pertsonak
4. Aliantzak eta Baliabideak
5. Prozesuak

- Adierazleen %70k hobekuntza izan dute, 2002koekin konparatzen baditugu, baina oraindik ez dira iritsi 2007ko helburura. Horretarako, abian jarri dituzte zenbait jardura-plan, hala erakunde zentralak nola gainerako zerbitzu-erakundeek eraginda.
- Adierazleen %15ek, berriz, lortua dute dagoeneko 2007ko helburua, eta horiek lantzen jarraitzeko asmoa dago, emaitzei eusteko eta, ahal dela, baita hobetzeko ere.

Hurrengo taulan “bideratutako adierazleen” eta “2007ko helburua lortua duten adierazleen” banaketa ageri da, 12 helburu espezifikoetarako.

2003-2007ko KALITATE-PLANA. 2003ko AURRERABIDE-TXOSTENA

	Bideratutako adierazleak	2007ko helburuak
1.1. PRESTAZIO SANITARIOEN ERAGINKORTASUNA ETA EFIKAZIA HOBETZEA	%80	%20(1/5)
1.2. ATENTZIOAREN JARRAIKORTASUNA HOBETZEA	%80	%20(1/5)
1.3. PRESTAZIO SANITARIOEN ERABILERAREN EGOKITASUNA HOBETZEA	%100	%0(0/3)
1.4. PAZIENTEEN ASISTENTZIA SANITARIOAREN SEGURTASUNA HOBETZEA	%50	%38(3/8)
1.5. PRESTAZIO SANITARIOEN ESKURAGARRITASUNA HOBETZEA	%44	%22(2/9)
1.6. OSTALARITZAKO TRATUA ETA BALDINTZAK HOBETZEA	%33	%17(1/6)
1.7. INFORMAZIOA HOBETZEA	%50	%17(1/6)

ZERBITZU SANITARIOAREN KALITATEA HOBETZEA

SUBTOTALA

%57

%21(9/42)

	Bideratutako adierazleak	2007ko helburuak
2.1. AITZINDARITZA	%90	%0(0/10)
2.2. POLITIKA ETA ESTRATEGIA	%86	%0(0/7)
2.3. PERTSONAK	%80	%10(1/10)
2.4. ALIANTZAK ETA BALIABIEAK	%86	%7(1/14)
2.5. PROZESUAK	%83	%33(2/6)

KUDEAKETAKO KALITATEA HOBETZEA

SUBTOTALA



%81

9%(4/47)

TOTALA

%70

15%(13/89)



■ Kudeaketa klinikoko unitatea

- Lehen mailako atentzioan ondorengo unitateek funtzionatu dute kudeaketa klinikoko kontratuen bidez:

2002	2003
GIPUZKOAKO EKIALDEKO Eskualdea Zumaia-Zestoa-Getaria Alde Zaharra Iztietia Beraun Altza Pasai Antxo Pasai San Pedro Intxaurreondo Lasarte-Usurbil	GIPUZKOAKO EKIALDEKO Eskualdea Oiartzun Altza Beraun Intxaurreondo Iztietia Lasarte Pasai Antxo Pasai San Pedro Alde Zaharra Gros Lezo-Pasai Donibane Zumaia
URIBEKO Eskualdea Gorliz-Plentzia Erandio Txoriherri Leioa	URIBEKO Eskualdea Erandio Gorliz-Plentzia Txoriherri Leioa Mungia
BARRUALDEKO Eskualdea Basauri Kareaga Aiara Durango Gernika aldea	BARRUALDEKO Eskualdea Abadiño-Matiena-Berriz Arratia Basauri-Ariz Aiara Basauri-Kareaga Durango Gernika aldea Etxebarri Galdakao Gernika Laudio Lekeitio Markina Ondarroa
ARABAKO Eskualdea Arabako mendialdea San Martin Aranbizkarra II Sansomendi Lakuabizkarra	ARABAKO Eskualdea Aranbizkarra II Arabako mendialdea San Martin Sansomendi Lakuabizkarra Abetxuko Langraiz Oka

BILBOKO Eskualdea

Alde Zaharra
Abusu
San Ignazio
La Merced
Errekalde

BILBOKO Eskualdea

Abusu
Alde Zaharra
San Ignazio
La Merced
Errekalde
San Adrian
Santutxu

GIPUZKOAKO MENDEBALDEKO Eskualdea

Villabona
Torrekua

GIPUZKOAKO MENDEBALDEKO Eskualdea

Villabona
Torrekua
Arrasate
Ermua
Ibarra
Oñati

EZKERRALDEA-ENKARTAZIOETAKO Eskualdea

Mamariga
Markontzaga Sestao
Sodupe
Desertu Barakaldo

EZKERRALDEA-ENKARTAZIOETAKO Eskualdea

Mamariga
Desertu
Sodupe-Güeñes
Markontzaga
Trapagaran
Errepelega

• **Atentzio espezializatuan kudeaketa klinikoko kontratudun unitateekin esperientziak burutu dira azken urteetan:**

TXAGORRITXU Ospitalea

Kardiologia eta Zainketa Kritikoak
Laborategiak

SANTIAGO Ospitalea

Psikiatria

BASURTUKO Ospitalea

Psikiatria
Anatomia Patologikoa
Gaixotasun Infekziosoak
Etxeko Ospitalizazioa

GALDAKAOKO Ospitalea

Pneumologia
Urologia-Litotrizia
Eguneko Ospitale Kirurgikoa

■ 2003ko beste proiektu garrantzitsu batzuk

Lehen mailako atentzioa

Praktika klinikoko gidak

Abenduaren 31n Osasun sailburuak hipertentsio arterialari buruzko praktika klinikoko gida aurkeztu zuen. Harrezkero, lehen mailako atentzioan gidaren berri jasotzeko eta hori erabiltzen hasteko prozesua hasi zen. Prozesu horretan, gida aurkezteko 74 saio egin ziren osasun-zentroetan eta lehen mailako atentzioko profesional sanitario guztiek jaso zuten gidaren berri. Orain, asmari buruzko praktika klinikoko gida bat lantzen ari dira.

Erizaintza

Erizaintzako zainketa integralen kudeaketako modulua bukatu da. Oraingoan, lehen mailako atentzioko arlo pediatrikorako da, eta, helduentzako moduluarekin egin zen moduan, 3S-Osabide aplikazio informatikoan integratzeko egin da, eta eskuliburu bat eta laguntzako metodologia ere baditu.

Era berean, bukaera eman zaio prozesu kronikoak dituzten pertsonen zainketen zabaltzeari eta estandarizazioari. Prozesu horiek programa-kontratuko lehentasuneko eskaintzan jasota daude (diabetesa, hipertentsioa, asma, BGBK eta etxeko atentzioa).

Jarraipena eman zaio zainketen metodologiari buruzko eta informatikako tresnak ezagutzeko prestakuntza-programari, lehen mailako atentzioko erizaintzat. Programa honetan 7 eskualdeetako 83 erizainek parte hartu dute.

Erizaintzako zerbitzuak eta informazio-sistema berrorientatzeko egitasmoa garatzen jarraitu dute.

Maila asistentzialen arteko erizaintzako koordinazioa indartzen jarraitu da.

Bezeroak Atenditzeko Eremuak (BAE)

BAEetako egitura fisiko eta funtzionala egokitzen jarraitu dugu. 2003an beste 9 unitate egiaztatu dira ISO 9001:2000 kalitate-sistemaren bidez. Horiez gain, LMko beste 30 unitatek eutsi diote beren kudeaketaren kalitate-sistemaren egiaztapenari; hortaz, 39 LMUk lortu dute ISO egiaztagiria (guztiak hartuta, %30).

Lehen mailako atentzioko prozesuen mapa

2002an egindako lehen mailako atentzioko prozesu generikoen mapan oinarrituta, LMko 4 unitatetan (Villabona, San Adrian, Leioa eta Zumaia-Zestoa-Getaria) ISO egiaztagiria zentroko jarduera guztira zabaldu da, eta BAEn egindako jarduera ez ezik, jarduera asistentziala ere hartu du bere baitan.

Informatizazioa

3S-Osabide ezartzen jarraitu dugu 2003an. Urtearen amaierako egoera hurrengo taulan ageri da:

Lehen mailako atentzioko eskualdeen informatizazioa 2003an

	OSABIDE							EAE	
	Araba	Gipuzkoako Mendebalde	Gipuzkoako Ekialdea	Barrualdea	Ezkerraldea Enkartzioak	Uribe	Bilbo	LMU	Zentroak
	21	21	23	17	19	9	21	131	310
	17	14	17	17	16	9	19	109	198
	%81	%67	%74	%100	%84	%100	%90	%83	%64

	OMI-AP							EAE	
	Araba	Gipuzkoako Mendebalde	Gipuzkoako Ekialdea	Barrualdea	Ezkerraldea Enkartzioak	Uribe	Bilbo	LMU	Zentroak
	21	21	23	17	19	9	21	131	310
	2	7	6	0	3	0	1	19	27
	%10	%33	%26	%0	%16	%0	%5	%15	%9

	GUZTIRA							EAE	
	Araba	Gipuzkoako Mendebalde	Gipuzkoako Ekialdea	Barrualdea	Ezkerraldea Enkartzioak	Uribe	Bilbo	LMU	Zentroak
	21	21	23	17	19	9	21	131	310
	19	21	23	17	19	9	20	128	225
	%90	%100	%100	%100	%100	%100	%95	%98	%73

Hist. klinika informatizatua duten LMUak	Araba	Gipuzkoako Mendebalde	Gipuzkoako Ekialdea	Barrualdea	Ezkerraldea Enkartzioak	Uribe	Bilbo	LMU
	19	21	23	17	14	9	18	121
	%90	%100	%100	%100	%74	%100	%86	%92

“Adjusted clinical groups (ACG)” sistemaren arabeko pazienteen sailkapena

ACG egitasmoaren ikerketa-fasea amaitu da. Case-mix sistema hau aztertzeke, 50 famili medikuren eta 10 pediatriaren pazienteei buruzko informazioa erregistratu da, Osabide informazio-sistema erabiliz. Egitasmo hau ohiko lan-baldintzetan garatu da eta sistemaren egokitasuna egiaztatu du, Osakidetza LMU eta kupoetako gaixotasunak aztertzeke erabil dezan. 2004an zehar, ACGren ustiapena zabaltzeko asmoa dago informazioa erregistratzeko baliotasun-irizpideak betetzen dituzten kupo mediko guztietara.

Atentzio espezializatua

- Teknologien erabilera**
- Jaioberrien hipoakusia goiz detektatzeko programa abian jartzea.
 - Aho bidezko antikoagulazio-terapia garatu eta kontrolatzeko lehenengo esperientzia pilotua.
 - Batzordeak osatzea biriketako hipertentsioaren tratamendurako, entzima-eskasiagatiko sortzetiko gaixotasunen tratamendurako eta berteporfino bidezko tratamendurako.
- Antolakuntza funtzionala**
- Asistentzia psikiatrikoko eta osasun mentaleko plan estrategikoa egiten bukatzea.
 - Haur eta gazteentzako ospitalizazio psikiatrikoko unitatea abian jartzea Basurtuko Ospitalean.
 - Eguneko ospitale mediko-kirurgiko berria abian jartzea Santiago Ospitalean.
 - Lea-Artibaiko konponbide azkarreko zentroaren antolaketa- eta arkitektura-diseinua.
 - Berresleitze funtzionala Tolosako espezialitate-zentrotik Donostia Ospitalera.
- Informatizazioa (e-Osabide)**
- San Eloy Ospitalean ondorengo moduluak ezarri eta mantentzea: onarpena, kirurgiako itxaronzerrenda, pazienteak identifikatzea eta segurtasuna eta sarbideak.
 - Ondorengo moduluak garatzea: jarduera-eskarien kudeaketa eta dokumentazioa eta artxiboa.
 - Analisi funtzionala bukatzea.
 - Katalogo korporatiboak sortu eta mantentzea. Integratzeko sistemen kode-korrelazioa.
- Praktika klinikoa**
- Erditzeko jarduera-gomendioak jasotzen dituen gida egiten bukatzea eta zabaltzea, haurdunaldi-bukaerako fetu bakarrak ipurdiz aurrerako aurkezpena duenerako.
 - Farmako immunogutxitzailez gaineztatutako sten koronarioen ezarpenen jarduera-erregistroa EAEn.
 - 41/2002 Legea -dokumentazio klinikoaren inguruan pazienteek dituzten eskubideei buruzkoa-betetzeari begira antolatutako saioak:
 - Isilpekotasunari buruzko tailerrak.
 - Ospitaleko dokumentazio klinikoa eskuratzeko prozedurari buruzko dokumentua egin eta argitaratzea.

Emergentziak

- Integratutako komunikazio-sistemaren postu pilotua abian jartzea (TETRA sistema).
- Hainbat prozesu aztertzea eta ondorioak lan-taldeetan bateratu eta dokumentuetan jasotzea:
 - Koordinazio-zentroetako prozesu operatiboen mapa.
 - Koordinazio-zentroetako telefono bidezko kontsulten prozesua. Baimen informatua ezartzea.

■ Aitormenak

- Kudeaketa eta administrazio sanitarioa berritzearen X. Saria Osakideta-Euskal Osasun Zerbitzuari.
- Kudeaketako Bikaintasunaren Urrezko Qa Zumarragako Ospitaleari eta Zilarrezko Qa Txagorritxu Ospitaleari, Gipuzkoako Ekialdeko Eskualdeari eta Osateki. Eusko Jaurlaritzak ematen ditu sariok, eta aurreko urteetan honako lau hauek jaso zituzten: Bidasoako Ospitaleak (urrezko eta zilarrezko Qak, Zumarragako Ospitaleak (Zilarrezko Qa) eta Arabako Ospitale Psikiatrikoak eta Ospitaleak kanpoko Osasun Mentalak (Zilarrezko Qa).

- Bikaintasunaren konpromiso-diploma jaso dute Osakidetako 9 zerbitzu-erakundek: Arabako Eskualdeak, Gipuzkoako Ekialdeko Eskualdeak, Gipuzkoako Mendebaldeko Eskualdeak, Ezkerraldea-Enkartazioetako Eskualdeak, Bizkaiko Ospitaleak kanpoko Osasun Mentalak, Zaldibarko Ospitaleak, Mendaroko Ospitaleak, Bermeoko Ospitaleak eta Txagorritxuko Erizaintzako Unibertsitate Eskolak.

Dagoeneko 24 erakundek (guztiak hartuta, %77k) gainditu dute Euskalit/Kalitaterako Euskal Fundazioak jarritako bikaintasunaren konpromiso-maila.

- ISO egiaztagiria:

2003. urtearen amaierarako zentro eta zerbitzu hauek jaso zuten egiaztagiria:

- Arabako Eskualdea: Olagibel, San Martin, Alde Zaharra, La Habana, Zaramaga eta Lakuabizkarreko zentroetako harrera, informazio eta administrazio-kudeaketako zerbitzuak.
- Gipuzkoako Ekialdeko Eskualdea: Pasai Antxo, Zumaia-Zestoa-Getaria, Errearteria-Beraun, Ondarreta, Egia eta Donostiako Alde Zaharreko zentroetako harrera, informazio eta administrazio-kudeaketako zerbitzuak. Gainera, Zumaia-Zestoa-Getariako zentroaren kasuan egiaztapena erabatekoa da eta bere baitan hartzen ditu lehen mailako atentzioko ondoko arlo hauetan eskaintzen dituen zerbitzuak: medikuntza orokorreko, pediatriako eta erizaintzako arloetan, proba diagnostikoetan eta komunitatearentzako esku-hartze sanitarioko programetan.
- Gipuzkoako Mendebaldeko Eskualdea: Villabona, Ibarra, Torrekua, Arrasate eta Oñatiko zentroetako harrera, informazio eta administrazio-kudeaketako zerbitzuak. Gainera, Villabonako zentroaren kasuan egiaztapena erabatekoa da eta bere baitan hartzen ditu lehen mailako atentzioko ondoko arlo hauetan eskaintzen dituen zerbitzuak: medikuntza orokorreko, pediatriako eta erizaintzako arloetan, proba diagnostikoetan eta komunitatearentzako esku-hartze sanitarioko programetan.
- Barrualdeko eskualdea: Aiara, Landako-lurreta eta Kareaga-San Migeleko zentroetako harrera, informazio eta administrazio-kudeaketako zerbitzuak.
- Uribeko Eskualdea: Astrabudua, Algorta, Leioa, Erandio, Gorliz-Plentzia eta Txoriherriko zentroetako harrera, informazio eta administrazio-kudeaketako zerbitzuak. Gainera, Leioako zentroaren kasuan egiaztapena erabatekoa da eta bere baitan hartzen ditu lehen mailako atentzioko ondoko arlo hauetan eskaintzen dituen zerbitzuak: medikuntza orokorreko, pediatriako eta erizaintzako arloetan, proba diagnostikoetan eta komunitatearentzako esku-hartze sanitarioko programetan.
- Bilboko Eskualdea: Errekaldeberri, Santutxu-Solokoetxe, San Adrian, San Ignazio, Santutxu-Karmelo eta Zazpi Kaleetako zentroetako harrera, informazio eta administrazio-kudeaketako zerbitzuak. Gainera, San Adriango zentroaren kasuan egiaztapena erabatekoa da eta bere baitan hartzen ditu lehen mailako atentzioko ondoko arlo hauetan eskaintzen dituen zerbitzuak: medikuntza orokorreko, pediatriako eta erizaintzako arloetan, proba diagnostikoetan eta komunitatearentzako esku-hartze sanitarioko programetan.
- Ezkerraldea-Enkartazioetako Eskualdea: Santurtzi-Mamariga, Muskiz-Gallarta, Balmaseda, Portugalete-Errepelega, La Paz, Trapaga eta Zallako zentroetako harrera, informazio eta administrazio-kudeaketako zerbitzuak.

- Gurutzetako Ospitalea: elikadura, mantentze-lan orokorrak, ingeniartza elektronikoa, segurtasuna eta ingeniartza, ostalaritza, ekonomia eta finantzako kudeaketa (erosketak, biltegiak, administrazio-kontratazioa, barne- eta kanpo-fakturazioa, eta kontabilitatea eta altxortegia).
- Santiago Ospitalea: dietetikako zerbitzuak agindutakoaren arabera janari-prestaketa (ingresatutako pazienteentzat, sukaldeko pertsonalarentzat eta guardiako pertsonalaren jangelarako), dokumentazio klinikoa eta artxiboa, eta medikuntza nuklearra.
- Basurtuko Ospitalea: anatomia patologikoa eta analisi urgenteen unitatea.
- Galdakaoko Ospitalea: kanpo-pazienteentzako dispentsazio farmazeutikoaren kudeaketa, neoplasiaren aurkako terapiaren kudeaketa, diagnostiko biologikoko probak, azterketa zitologiko eta histologikoak eta autopsiak, eta hemoderibatuen transfusioa.
- Zumarragako Ospitalea: liburutegia, proba diagnostikoak, anatomia patologikoa, materialaren esterilizazioa, kanpo-konsultetako eta larrialdietako onarpeneko kudeaketa, horniduretako kudeaketa, jantzien eta arropa zuriaren garbiketa, ordaintzen kudeaketa, pazienteen atentzioa eta asistentzia soziala, ekipoen eta instalazioen konponketa, eta lan-osasuna.
- Bidasoako ospitalea: ingresurik gabeko kirurgia, analisi klinikoetako laborategia, anatomia patologikoko laborategia, erradiologiako zerbitzua, onarpena eta historia klinikoen artxiboa, hondakin biosanitarioen kudeaketa eta jateko zerbitzua.
- Deba Garaiko Ospitalea: pazienteen onarpena eta historia klinikoen artxiboa, ingresatutako pazienteentzako medikamentu-zerbitzua, paziente eta erabiltzaileen atentzioa.
- Santa Marina Ospitalea: pazienteen onarpena, analisi klinikoak, erradiologia, farmazia eta artxiboa.
- Zamudioko Ospitalea: analisi klinikoen kudeaketa, farmaziako kudeaketa, liburutegiko kudeaketa, garbiketako kudeaketa.
- Bermeoko Ospitalea: kudeaketa farmakoterapeutikoa.
- Transfusio eta giza ehunen euskal zentroa.
- Osatek: irudi bidezko diagnostikoan oinarritutako asistentzia sanitarioa.

Osakidetzako zerbitzu-erakundeek jaso dituzten egiaztagirien egoera-koadroa hurrengo orrian azaltzen da.

Erakundeen kanpo-aitormenak (ISO eta EFQM)

	ISO		EFQM		
	Egiaztagiria	Bikain tasunaren konpromisoaren diploma	>300 puntu Euskaliten kanpo-ebaluazioan	Euskaliten Zilarrezko Qa	Eusko Jauriartzaren Urrezko Qa
Arabako Eskualdea	6 zentro (BAE bakarrik)				
Gipuzkoako Ekialdeko eskualdea	zentro bat (osoa) 5 zentro (BAE bakarrik)				
Gipuzkoako Mendebaldeko eskualdea	zentro bat (osoa) 4 zentro (BAE bakarrik)				
Bilboko Eskualdea	zentro bat (osoa) 5 zentro (BAE bakarrik)				
Ezkerraldea-Enkartzioetako Eskualdea	7 zentro (BAE bakarrik)				
Barrualdeko Eskualdea	3 zentro (BAE bakarrik)				
Uribeo Eskualdea	zentro bat (osoa) 5 zentro (BAE bakarrik)				
Donostia Ospitalea					
Gurutzetako Ospitalea	6 prozesu				
Txagorritxu Ospitalea					
Santiago Ospitalea	3 prozesu				
Basurtuko Ospitalea	2 prozesu				
Galdakaoko Ospitalea	5 prozesu				
Zumarragako Ospitalea	11 prozesu				
Bidasoako Ospitalea	7 prozesu				
Mendaroko Ospitalea					
Deba Garaiko Ospitalea	3 prozesu				
San Eloy Ospitalea					
Santa Marina Ospitalea	5 prozesu				
Zamudioko Ospitalea	4 prozesu				
Bermeoko Ospitalea	prozesu bat				
Zaldibarko Ospitalea					
Arabako Osp. Psik. eta Ospitalez kanpoko OM					
Bizkaiko Ospitalez kanpoko OM					
Gipuzkoako Ospitalez kanpoko OM					
Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroa	zentro osoa				
Txagorritxuko Erizaintzako Unibertsitate Eskola					
Osatek	erakunde osoa				

AAC: Área de atención al cliente

Erakundearen argitalpenak

Inprimatuak

- Erizaintzako zainketa estandarizatuaren planak osasun mentalean. Praktikarako gidak. Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua. Vitoria-Gasteiz. 2003. (ISBN 84-89342-21-0).
- Programa informático Zaineri: salud mental. Kudeaketa Sanitarioko Zuzendaritza. Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua. Vitoria-Gasteiz. 2003.
- Programa informático Zaineri: sistema de gestión de los cuidados. Kudeaketa Sanitarioko Zuzendaritza. Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua. Vitoria-Gasteiz. 2003.
- Ospitale bateko prozesuak irudikatzeko gida. Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua. Vitoria-Gasteiz. 2003. (ISBN 84-89342-22-9).
- Ospitaleetako dokumentazio klinikoa eskuratzeko prozedura. Dokumentazio Klinikoko Batzordea. Kudeaketa Sanitarioko Zuzendaritza. Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua. Vitoria-Gasteiz. 2003.
- Memoria de los registros hospitalarios del cáncer. Kudeaketa Sanitarioko Zuzendaritza. Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua. Vitoria-Gasteiz. 2003.
- Manual de descripción de los Grupos Relacionados por el Diagnóstico (AP-GRD v. 18.0). Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua. Vitoria-Gasteiz. 2003. (ISBN 84-89342-23-7).
- Osasun erakundeetan 5S-en metodologia autoezartzeko gida. Kudeaketa Sanitarioko Zuzendaritza. Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua. Vitoria-Gasteiz. 2003. (ISBN 84-89342-24-5).
- Urrezko Q Memoria 2002: BidasoaKo Ospitalea. Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua. Vitoria-Gasteiz. 2003. (ISBN 84-89342-25-3).
- Haur bakar baten erditzea ipurmamiz aurrera, ohiko haurdunaldiaren bukaeran. Gomerdioak. Kudeaketa Sanitarioko Zuzendaritza. Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua. Vitoria-Gasteiz. 2003. (ISBN 84-89342-26-1).
- Manejo de pacientes con malestar psicosocial en atención primaria. Intervención Depenas. Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua. Vitoria-Gasteiz. 2003. (ISBN 84-89342-27-X).
- Plan Estrategikoa 2003-2007. Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua. Vitoria-Gasteiz. 2003. (ISBN 84-89342-28-8).
- Diagnostiko talde erlazionatuak deskribatzeko gidaliburua (AP-GRD v. 18.0). Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua. Vitoria-Gasteiz. 2003. (ISBN 84-89342-30-X).

Bideografikoak

60 bideo egin ditugu, horietako %47 Bizkaiko zentroetakoak dira, %43 Arabakoak eta %10 Gipuzkoakoak; gaien arabera honela sailkatzen direnak:

Kirurgia orokorra	5
Kirurgia endoskopikoa	32
Bestelako espezialitate kirurgikoak	10
Espezialitate medikoak	5
Osasun-hezkuntza	2
Marketing sanitarioa	6

■ Interes bereziko arautegia

ARAU-MOTA	ARGITARATZE DATA*	AIPAMENA
67/2003 Dekretua	31/3/2003	Euskararen erabilera Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan normalizatzeko dena.
59/2003 Dekretua	10/4/2003	Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Barrutiak finkatzen dituenak.
76/2003 Dekretua	5/5/2003	Osasun zentro, zerbitzu eta establezimenduak irekitzeko, jardunean jartzeko eta aldatzeko baimena ematen duen Dekretua hirugarren aldiz aldatzen duena.
274/2003 Dekretua	26/11/2003	Osasun-arloko publizitatea arautzen duen dekretua laugarren aldiz aldatzen duena.
270/2003 Dekretua	28/11/2003	Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroa sortu eta arautzekoa.
6/11/2003 Agindua	23/12/2003	Honen bidez, izaera pertsonala duten datuak erabilia, "aurretiazko borondateen erregistroa" deritzon fitxategi automatizatua sortzen da, eta Osasun Sailak kudeatzen dituen gainerako erregistroei gehitzen zaie.
28/03/2003 Erabakia	16/4/2003	Ordaintzera behartuta dauden hirugarren batzuei osasun eta hezkuntza zerbitzuak emateagatik kobratu beharreko tarifak onartzen dituenak.
13/03/2003 Erabakia	9/5/2003	Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Agiri Klinikoen Batzordea sortu eta eginkizunak ematen dizkiona.
28/03/2003 Erabakia	17/6/2003	Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko datuak babesteko Segurtasun Batzordea sortu eta haren zereginak ezartzekoa.
2/2003 Jarraibidea	30/5/2003	Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zerbitzu-erakundeetarako segurtasunaren antolaketa-eredua.
5/2003 Jarraibidea	4/8/2003	Hemodialisi eta dialisi peritonealaren kasuan jarraitu beharrekoak.
6/2003 Jarraibidea	2/9/2003	Izaera pertsonala duten datuak babesteari dagokionez, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko pertsonalaren egitekoak eta betebeharrak. Lan-prozedurak.
7/2003 Jarraibidea	7/10/2003	Proba osagarrien oinarritzko eskaintza lehen mailako atentzioan.
10/2003 Jarraibidea	15/12/2003	Artritis erreumatoidea tratatzeko farmako biologikoak erabiltzea.



(*) Dekretu, agindu eta erabakien argitaratze-data EHAAkoa da.



III. Pertsonak


Plantilla

Langileen banaketa talde profesionalen arabera




**PLANTILLA
GUZTIRA
22.404**


Plantillaren banaketa erakundearen motaren arabera




Arabako plantillaren banaketa



Gipuzkoako plantillaren banaketa




Bizkaiko plantillaren banaketa




Plantillaren ezaugarriak


GENEROAREN ARABERAKO BANAKETA




ADIN-PIRAMIDEA




GENERO ETA ADIN-TALDEKOEN ARABERAKO BANAKETA



GENERO ETA TALDE PROFESIOALEN ARABERAKO BANAKETA



ADIN ETA TALDE PROFESIOALEN ARABERAKO BANAKETA



Enplegatutako pertsonen batez besteko kopurua

Talde Profesionala	Enplegatutako pertsonen batez besteko kopurua*
A1: Fakultatibo mediko eta teknikariak	5.607
A2: Goi-mailako teknikariak	302
B1: Diplomatu sanitarioak	8.562
B2: Erdi-mailako teknikariak	285
C1: Teknikari espezialista sanitarioak	679
C2: Administrazioko teknikari profesionalak	442
C3: Teknikari espezialista profesionalak	137
D1: Teknikari laguntzaile sanitarioak	4.996
D2: Administrazio laguntzaile profesionalak	2.113
D3: Teknikari laguntzaile profesionalak	814
E1: Urgazleak/zerbitzuetako langileak	2.783
PD: Zuzendariak	126
GUZTIRA	26.846

*Pertsonal finkoa, bitartekoa, ordezkia eta behin-behinekoa.

Plantillaren plangintza eta antolamendua

	Fakultatiboak	Sanitario ez-fakultatiboak	Zerbitzu orokorrak	Funtzio administratiboak	GUZTIRA
Lekualdaketa	7	42	8	16	73
Egokitzapena	175	79	29	41	324
Birmoldaketa	33	19	19	76	147
Hierarkizazioa/ Integrazioa	24	4			28
	239	144	56	133	572

Hautaketa eta lanpostuak betetzea

Lan-Eskaintza Publikoa

Ekitaldian zehar 2002. urtean hasitako prozesuaren garapenarekin jarraitu da. EHAAn onartutako 111 ebazpenen argitaratzearekin bukaera eman zaio oposizio-aldiari. Kategoria bat (Prebentzioko erizaina) oraindik erabaki gabe dago kautelazko etendura baitu mandatu judizialagatik. Hain zuzen ere, guztira 13 bigarren ariketa egin ziren, non 478 aurkeztu, eta 161ek gainditu baitzuten.

Lehiaketaldian euskarako hiru proba idatzi egin ziren martxoan, eta horietara 6.006 lehiakide aurkeztu ziren. Hautaketako epaimahaien lanari esker, 2003an 100 kategoriatarako lehiakideen behin-behineko zerrenda argitaratu zen EHAAn. Halaber, 46 kategoriako lehiakideen behin betiko zerrenda argitaratzearekin bukaera eman zitzaion hautaketa-prozesuari.


ONARTUTAKOAK	BEHIN-BEHINEKOAK	BEHIN BETIKOAK
111	100	46

Deialdi publikoak

ZUZENDARITZA	BORONDATEZKO IZENDAPENA	LEHEN MAILAKO ATENTZIOKO UNITATEBURUAK
9	4	11

Aldi baterako kontratazioa

Pilatutako kontratazio-denbora pertsonako



Izendapenak/kontratuak lotura-motaren arabera

	ARABA		GIPUZKOA		BIZKAIA		GUZTIRA
Bitartekoak	241	26,87%	303	33,78%	353	39,35%	897
Ordezkoak	15.927	24,27%	25.185	38,37%	24.522	37,36%	65.634
Aldi baterakoak	6.332	14,89%	15.050	35,40%	21.129	49,70%	42.511
Aldi baterako izendapena	5.346	14,23%	13.139	34,96%	19.095	50,81%	37.580
Etengabeko Atentzioko Zerbitzua	247	12,00%	738	35,84%	1.074	52,16%	2.059
BAME kontratua	379	46,45%	99	12,13%	338	41,42%	816
	22.140		39.464		45.382		106.986

Izendapenak/kontratuak talde profesional eta kategoriaren arabera

	ARABA		GIPUZKOA		BIZKAIA		GUZTIRA	
A1 Fakultatibo medikoak eta teknikoak	4.539	%17,98	8.541	%33,84	12.161	%48,18	25.241	%23,59
Medikua	4.500	%18,14	8.339	%33,62	11.966	%48,24	24.805	%23,19
Farmazialaria	25	%16,45	94	%61,84	33	%21,71	152	%0,14
Odontologoa	13	%5,20	100	%40,00	137	%54,80	250	%0,23
Biologoa			1	%6,67	14	%93,33	15	%0,01
Psikologoa	1	%5,56	6	%33,33	11	%61,11	18	%0,02
Fisikoa			1	%100,00			1	%0,00
A2 Goi-mailako teknikariak	8	%32,00	9	%36,00	8	%32,00	25	%0,02
Goi-mailako informatikaria	4	%33,33	5	%41,67	3	%25,00	12	%0,01
Goi-mailako beste tituludun batzuk	4	%30,77	4	%30,77	5	%38,46	13	%0,01
B1 Diplomadun sanitarioak	6.780	%20,02	13.374	%39,48	13.721	%40,51	33.874	%31,66
Erizaina	6.664	%20,33	12.964	%39,55	13.153	%40,12	32.781	%30,64
Emagina	9	%16,36	13	%23,64	33	%60,00	55	%0,05
Fisioterapeuta	107	%10,31	396	%38,15	535	%51,54	1.038	%0,97
B2 Erdi-mailako teknikariak	11	%20,37	9	%16,67	34	%62,96	54	%0,05
Gizarte-langilea	7	%19,44	1	%2,78	28	%77,78	36	%0,03
Erdi-mailako beste tituludun batzuk	4	%22,22	8	%44,44	6	%33,33	18	%0,02
C1 Teknikari espezialista sanitarioak	655	%17,87	1.714	%46,77	1.296	%35,36	3.665	%3,43
Erradiologiako teknikari espezialista	275	%15,24	962	%53,30	568	%31,47	1.805	%1,69
Laborategiko teknikari espezialista	260	%17,36	602	%40,19	636	%42,46	1.498	%1,40
Anatomia patologikoko teknikari espezialista	27	%15,00	107	%59,44	46	%25,56	180	%0,17
Medikuntza nuklearreko teknikari espezialista	47	%69,12			21	%30,88	68	%0,06
Beste talde sanitario batzuk	46	%40,35	43	%37,72	25	%21,93	114	%0,11
C2 Administrazioko teknikari espezialistak	86	%70,49	15	%12,30	21	%17,21	122	%0,11
C3 Teknikari espezialista profesionalak	276	%42,20	191	%29,20	187	%28,59	654	%0,61
D1 Teknikari laguntzaile sanitarioak	4.109	%21,81	6.893	%36,59	7.838	%41,60	18.840	%17,61
Erizaintzako laguntzailea	4.100	%21,77	6.892	%36,60	7.838	%41,63	18.830	%17,60
Farmaziako laguntzailea	9	%90,00	1	%10,00			10	%0,01
D2 Administrazioko teknikari laguntzailea	2.028	%20,56	3.674	%37,24	4.163	%42,20	9.865	%9,22
D3 Teknikari laguntzaile profesionalak	838	%30,74	772	%28,32	1.116	%40,94	2.726	%2,55
E1 Urgazleak/Langileak	2.810	%23,57	4.273	%35,85	4.837	%40,58	11.920	%11,14
Zeladorea	1.182	%18,91	2.620	%41,91	2.449	%39,18	6.251	%5,84
Zerbitzuetako langilea	1.628	%28,72	1.653	%29,16	2.388	%42,12	5.669	%5,30
	22.140	%20,69	39.465	%36,89	45.382	%42,42	106.986	%100,00

Izendapenak/kontratuak generoaren arabera

		GIZONAK		EMAKUMEAK		GUZTIRA	
A1	Fakultatibo mediko eta teknikoak	8.578	%33,99	16.662	%66,01	25.240	%23,59
A2	Goi-mailako teknikariak	8	%32,00	17	%68,00	25	%0,02
B1	Sanitario diplomadunak	2.863	%8,45	31.012	%91,55	33.875	%31,66
B2	Erdi-mailako teknikariak	3	%5,56	51	%94,44	54	%0,05
C1	Teknikari espezialista sanitarioak	342	%9,33	3.323	%90,67	3.665	%3,43
C2	Administrazioko teknikari espezialistak	11	%9,02	111	%90,98	122	%0,11
C3	Teknikari espezialista profesionalak	325	%49,69	329	%50,31	654	%0,61
D1	Teknikari laguntzaile sanitarioak	710	%3,77	18.130	%96,23	18.840	%17,61
D2	Administrazioko teknikari laguntzaileak	693	%7,02	9.172	%92,98	9.865	%9,22
D3	Teknikari laguntzaile profesionalak	1.165	%42,74	1.561	%57,26	2.726	%2,55
E1	Urgazleak/langileak	3.727	%31,27	8.193	%68,73	11.920	%11,14
		18.425	%17,22	88.561	%82,78	106.986	%100,00

Kontratazioko Akordioa garatzearen, behar diren protokoloak ezarri dira berariazko hizkuntza eskakizuna duten lanpostuak kontratatzeko. Honako kontratazio hauek egin dira hutsik eta erreserbatuta dauden lanpostuak betetzeko:

TALDE PROFESIONALA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
A	3	6	1	10
B		3	1	4
GUZTIRA	3	9	2	14

■ Hizkuntza-normalizazioa

- Martxoaren 18ko 67/2003 Dekretua, euskararen erabilera Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan normalizatzeko.
- Hizkuntza-eskakizunak baliokidetzeko deialdia:

HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA	KOPURUA
1HE	28
2HE	164
3HE	501
4HE	19
GUZTIRA	712

